

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**8/2020 TXOSTENA**

Gaia: Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko maiatzaren 26an Berualari emondako obra lizentziaren ofiziozko berrikuspenaren ebazpena

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.3 artikulua

1. Aurrekariak

Lehenengoa.- EAeko administrazioarekiko auzien Justizia Auzitegi Nagusiak 338/2018 epaia eman zuen, zeinak berresten zuen errekurritutako epaia. Epaiak zioen“.. estimó el recurso interpuesto y condenó al Ayuntamiento a tramitar el correspondiente expediente de revisión de oficio”


Bigarrena.- 2019ko otsailaren 28an Osoko Bilkurak erabaki zuen 20.3 exekuzio unitateko II blokea berreraikitze 2014ko maiatzaren 26an Beruala SAri eman zitzaion lizentziaren ofiziozko berrikuspen prozedurari hasiera ematea.

Hirugarrena.- 2019ko uztailaren 30ean udal arkitektoak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2019ko irailaren 17an urigintza, obra eta ingurumen saileko teknikariak txostena eta erabaki proposamena egin zituen.

Bosgarrena.- 2019ko abenduaren 3an Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 190/2019 ebazpena jaso da.

Seigarrena.- 2020ko urtarrilaren 14an urigintza, obra eta ingurumen saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak txostena eta erabaki proposamena egin zituen.

2. Oinarri juridikoak**2.1. Aplikagarria den araudia****Sinadurea eta data**

- Azaroaren 28ko 30/1992 Legea, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Prozedura Administratibo Erkidea arautzen dituen (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. Xedapen Iragankorraren arabera).
- Uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duena.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua , Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onesten duena.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskal lurzoru eta Hirigintzako Legea onartzen duena.

2.2. Azterketa juridikoa


Gutziz deusezak diren ekintzen ofiziozko berrikusketari buruz

Kasu honetan azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea aplikatzen da. Lege honetan VII. Tituluaren barruan (Egintzak administrazio-bidean berrikusteari buruz), I. Kapituluak ofiziozko berrikuspenaren inguruan dihardu; zehatzago, 102. artikuluan arautzen da “xedapen eta egintza deusezak berrikustea”. Artikulu horrek dio:

Artículo 102. Revisión de disposiciones y actos nulos.

1. Las Administraciones públicas, en cualquier momento, por iniciativa propia o a solicitud de interesado, y previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, si lo hubiere, declararán de oficio la nulidad de los actos administrativos que hayan puesto fin a la vía administrativa o que no hayan sido recurridos en plazo, en los supuestos previstos en el artículo 62.1.

2. Asimismo, en cualquier momento, las Administraciones públicas de oficio, y previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la



Comunidad Autónoma si lo hubiere, podrán declarar la nulidad de las disposiciones administrativas en los supuestos previstos en el artículo 62.2.

3. El órgano competente para la revisión de oficio podrá acordar motivadamente la inadmisión a trámite de las solicitudes formuladas por los interesados, sin necesidad de recabar dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo de la Comunidad Autónoma, cuando las mismas no se basen en alguna de las causas de nulidad del artículo 62 o carezcan manifiestamente de fundamento, así como en el supuesto de que se hubieran desestimado en cuanto al fondo otras solicitudes sustancialmente iguales.

4. Las Administraciones públicas, al declarar la nulidad de una disposición o acto, podrán establecer, en la misma resolución, las indemnizaciones que proceda reconocer a los interesados, si se dan las circunstancias previstas en los artículos 139.2 y 141.1 de esta Ley; sin perjuicio de que, tratándose de una disposición, subsistan los actos firmes dictados en aplicación de la misma.

5. Cuando el procedimiento se hubiera iniciado de oficio, el transcurso del plazo de tres meses desde su inicio sin dictarse resolución producirá la caducidad del mismo. Si el procedimiento se hubiera iniciado a solicitud de interesado, se podrá entender la misma desestimada por silencio administrativo.

Eta, hain zuzen ere, artikuluhori estu lotu behar dugu arau bereko 62. artikuluekin, zeinak lehenengo atalean zehazten duen zein kasutan diren erabat deusezak egintzak:

1. Los actos de las Administraciones públicas son nulos de pleno derecho en los casos siguientes:

a) Los que lesionen los derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional.

b) Los dictados por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia o del territorio.

c) Los que tengan un contenido imposible.



d) Los que sean constitutivos de infracción penal o se dicten como consecuencia de ésta.

e) Los dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido o de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad de los órganos colegiados.

f) Los actos expresos o presuntos contrarios al ordenamiento jurídico por los que se adquieren facultades o derechos cuando se carezca de los requisitos esenciales para su adquisición.

g) Cualquier otro que se establezca expresamente en una disposición de rango legal.

Hortaz, espedientea bideratzerako orduan gogoan izan behar ditugu hurrengo kontuak:

1. Interesdunek ofizioz berrikusteko eskatu dezakete administrazio-egintzei begira, ez ordea, administrazio-xedapenei begira.
2. Egintza deusezaren berrikuspena erabakitzeko, Euskadiko Aholu Batzorde Juridikoak alde zuzenetik, zuzenbide osoko deuseztasuna adierazteko arrazoiren bat antzeman behar izan du. Kontseiluaren irizpena, kasu honetan, beharrezkoa ez ezik, loteslea ere bada.
3. Berrikusi ahal izateko, ustez deusezak izan daitezkeen egintzok denborazko betekizunak bete beharko dituzten hain zuzen ere, administrazio-bidea amaitu izana edo epe barruan errekurtsorik jarri ez izana haien aurka.
4. Administrazio-egintzaren deuseztasuna adierazten duen ebazpenean bertan udalak ezarri dezake zein kalte-ordain dagokien interesdunei, baldin eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 139.2 eta 141.1 artikuluetan zehazten diren inguruabarrak ematen badira.
5. Espedientea ebazteko eta jakinarazteko epea hiru hilabete izango da. Horrekin bat etorritik, espedientea ofizioz hasi denean, epea igaro bada eta ez bada ebazpenik eman,



espedientea iraungiko da; alabaina, prozedura interesdunak eskatuta hasi denean, epea igarotzean isiltasuna negatiboa izango da.

Prozedurari buruz

- Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 338/2018 epaia betearazteko, Osoko Bilkurak erabaki zuen 20.3 exekuzio unitateko II blokea berreraikitzeke 2014ko maiatzaren 26an Beruala SAri eman zion lizentziaren ofiziozko berrikuspen prozedurari hasiera ematea.

Idazkari honen ustez Osoko Bilkura da berrikusteko espedienteak erabakitzeko eskumena duena. Izan ere, nahiz eta legeak zehatz-mehatz ez jaso, deuseztagarriak (*anulables*) izan daitezkeen espedienteetan argi agertzen da eskumena Osoko Bilkurarena dena; eta ulertzen da, are gehiago izan beharko litzatekeela erabat deusezak izan daitezkeen kasuetan. Tributu deusezen arloan, adibidez, legeak argi eta garbi jasotzen du Osoko Bilkurarena dela eskubidea. Zentzu berean interpretatzen du Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eta hala ondorioztatzen da 1987ko otsailaren 2an Auzitegi Gorenak eman zuen epaian ere.


- Behin espedientea hasita, interesdunei 10-15 eguneko alegazio epea eman beharko zaie dagozkion alegazio edo erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Hamar eguneko alegazio epea eman zaie, bai Ibarretas XXI, SL enpresari, bai Beruala, SAri.

- Dagozkion txosten tekniko eta juridikoak egin behar dira espedientea berrikustearen beharrezana eta legezkotasuna justifikatzeko.

Udal arkitektoak eta Urigintza, Obra eta Ingurumen Teknikariak txostenak egin dituzte, ofizioz berrikustearen kontra.

- Dagozkion txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, erabaki proposamen egin beharko da eta Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Batzorde Juridikora eskatuko zaio txostena.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40003913800I5Q2P1R4K2P6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/01/2020
15:31:09

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0012
Data: 28/01/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Jaso da Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Batzorde Juridikoaren 191/2019 ebazpena, ondorioztatzen duena ez dagokiola ofiziozko berrikusketa.

- Ondoren erabaki proposamena egin da eta Osoko Bilkurak erabakia hartu beharko du gehiengo soilez.
- Behin Osoko Bilkurak ebazpena eman ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie dagozkion ondoretarako.

Erabaki proposamenaren edukiari buruz

Gaiaren mamiari dagokionez, bat egiten da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 190/2019 ebazpenarekin. 190/2019 ebazpenak, loteslea denak, dio: *“No procede la revisión de oficio del Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 26 de mayo de 2014, por el que se aprueba la modificación del proyecto de construcción de viviendas de protección oficial del bloque 2 de la Unidad de Ejecución 20.3 de Bermeo.”*

Hortaz, idazkari honen ustez berrikusi nahi den administrazio-egintza ez dago azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.f egoeran.

3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz Urigintza, Obra eta Ingurumeneko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako 2020ko urtarrilaren 14ko proposamenari **aldeko txostena** egiten diot.

Oharrak:

Urigintza, Obra eta Ingurumeneko Administrazio Orokorreko Teknikariaren 2020ko urtarrilaren 14ko txosten eta erabaki proposamenenean erabakia berrikusteko espedientea hasia “Tokiko Gobernu Batzarrak” erabaki zuela jarri da eta Osoko Bilkurak erabaki zuen, beraz, egitezko akatsa zuzendu behar da.


Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.



Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Idazkari nagusia,

Jurdana Uriarte Lejarraga

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40003913800I5Q2P1R4K2P6</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/01/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/01/2020 15:31:09</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0012</p> <p>Fecha: 28/01/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	---

